

# ZERBAIT ERREALA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Gaur **MARIA**arentzt egun txarra da. **LUIS** animatzen saiatzen da, opari txiki bat eginez.

**MARÍA:** (iPod batekin eskuan) Hartu, ez diat nahi, mila esker. Hamar mila abesti baino gehiago sartzen dituala diok? Ziur baietz, baina ez diat nahi, ez gaizki hartu, oparitxoa aintzat hartzen diat, alaitzea nahi izan nauk, baina ez diat nahi. Eta ez tematu, utz ezak jada, ez diat ez telefono mugikorrik izango, ez eta Internetik ere. Bizitza osoa mugikorrik gabe bizi izan diat, hala jarrai zezakeat. Nirekin hitz egin nahi baduk finkora hots egiten didak, beti egin duan moduan; eta presarik ez baduk, gutun bat bidaltzen didak -oraindik Correos existitzen duk, badakik?-inoiz egin duk? Badakik zer duan gutun bat bidaltzea, paperezko gutun bat? Esperientzia zirraragarria duk, proba ezak. Zerbeit... fisikoa duk, heure zentzumenak nabari zitzakean zerbeit. Badakik zer sentitzen duan leku batera joan eta galdu eta berandu heltzen haizenean? Gp... Ze izen dik horrek? Gp...s, ez dik sentitzen uzten. Beldurra sentitzen duk, bihotz-taupadak, bizirik sentitzen duk hire burua. Badakik zenbat baloratzen duan filma bat, ikusteko jantzi, kalera irten, hotzarekin, bideoklubera heldu, filma alokatu, etxera dardarka bueltatu eta dardara artean sofan uzkurto behar baduk? Hori beti ere bideoklubera joan eta filma jada alokatuta zagok ala ez jakin gabe. Hori galtzen ari haiz. Eta erreala duk, fisikoa, gorputzean sentitzen duk. Motxilan sartu dituan hamar liburuen pisua nola sentitzen duan, ez dakianean horietako zein irakurri nahi izango duan kafetegian. Inork ez hau behartzen, nahi hualako egiten duk. Eta nork nahi dik bizkar perfektu bat! Errua... bizitzarena duk, ez duk inorena. Hik ikusmena gaizki daukak eta ez diek pantaila horiei errua botatzen.

Geure aitonak liburu-denda bat muntatu zian. Aitak harekin jarraitu zian. Ni txikitatik jolasten ninduan liburu-mendi horien artean. Haiak bezalakoa ninduala amets egin nian. Eta zin egin nian egunen batean liburu-denda neure seme-alabei pasatuko nieala, neure bilobei. Gaur itxi behar izan diat, eta oraindik ez zakiat zergatik. Paperak sinatzetik natorrek. Ezin duk imajinatu zer sentitu diadan. Zerbeit erreala sentitu diat, zerbeit fisikoa, mingarria. Gustuko dituk traste hauek? Primeran, goza itzak.